

Prentsa-ohar komuna

STEILAS, SUATEA, STEG, STEPV, USTEC-STEs eta STEs-i konfederazioa Iruñean elkartu gara " hezkuntza eta hizkuntzak eskola globalizatuan" jardunaldietan otsailaren 19 eta 20an. Gure hizkuntza propioek bizi duten egoera ikusita, honakoa adierazi nahi dugu:

Jakin badakigu gure lurraldeek abiapuntu ezberdinak dituztela, baina LOMCE, LEC (Catalunyako hezkuntza legea) eta HEZIBERRIk (EAEko hezkuntza lege egitasmoa) suposatu duten hezkuntza kalitatearen galera eta gure berezko hizkuntzak jasaten ari diren erasoak ikusita, lege hauen indargabetze eskaera berresten dugu.

- Bertako hizkuntzen helburuen, berreskurapenaren, ohorearen, bultzada eta hedapenaren aldeko borrokarekin bat egiten dugu.

- Edozein hezkuntza legek bertako hizkuntzen babes eta sustapena bermatu behar du. Atzerriko hizkuntzen lanketa – eredu eleanitzen bidez – ezin da gure hizkuntzen kalterako izan.

- LOMCE, LEC, HEZIBERRI edota aurreko eskaera bermatzen ez duen edozein hezkuntza legek geldiarazteko bide komuna egiteko konpromisoa berresten dugu.

STEILAS, SUATEA, STEG, STEPV, USTEC-STEs eta STEs konfederazioak bide honetan sakontzeko topaketa bat egitea adostu dugu.